

**UDAL-BATZARRAK 2.002KO ABENDUAREN 26AN EGINDAKO OHIZ
KANPOKO BILKURARI DAGOKION AKTA**

LEHENDAKARIA: Jose M^a Sarasola Goenaga

ZINEGOTZIAK:

Pedro M^a Peñagarikano Labaka
Miren Maite Aizpurua Etxeberria
Manuel Odriozola Iruretagoiena
Mikel Errazkin Agirrezabala
Rafael Uribarren Axpe
Mikel Zubillaga Galarraga

IDAZKARIA:

Nerea Etxebarria Atutxa

AZTERGAIK:

- 1.-2002ko urriaren 21eko, 2002ko azaroaren 5eko eta 2002ko abenduaren 5eko akten onarpena.
- 2.-Alkatetzako dekretuen berri ematea, 465 zenbakitik 502 zenbakira, biak barne.
- 3.-Itxitako ekitaldiko trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren zenbait likidaziori baxa emateko proposamena.
- 4.-2002/1 kreditu aldaketarako espedientearen onarpena.
- 5.- Euskalgintzarako zenbait dirulaguntzen onarpena.
- 6.- Euskadiko Toki eta Foru Administrazioaren zerbitzura dauden langileen lan baldintzak arautzeko hitzarmen politikoa 2002ko eta 2003ko ekitaldietarako.

Anoetako Udaetxean, bi mila eta biko abenduaren hogeitaseian, arratsaldeko zazpi terdietan, Udal-Batzarra bildu da, Ohiz Kanpoko Bilkura egin asmoz JOSE MARIA SARASOLA GOENAGA Alkate jaunaren lehendakaritzapean, alboan aipaturiko zinegotziak dituela.

Nerea Etxebarria Atutxak, Udal honetan Idazkari Akzidentala bezala jardunean ari denak, denaren berri zinpean jasotzen du.

ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK:

1.- 2002ko urriaren 21eko, 2002ko azaroaren 5eko eta 2002ko abenduaren 5eko akten onarpena.

Aipaturiko aktak alkateak irakurri ditu eta udalbatzarrak ahobatez onetsi ditu aktak.

2.- Alkatetzako Dekretuen berri ematea 465 zenbakitik 502 zenbakira, biak barne.

Alkateak emandako ebazpenen berri ematen du, ebazpen horiek 2002.urteko 465 tik 502ra bitartekoak izanik, biak barne.

Udalbatza jakitun geratzen da.

3.- Itxitako ekitaldiko trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren zenbait likidaziori baxa emateko proposamena.

Jarraian zerrendaturiko likidazioak guztira 127,97 eurotako dirukopurua batzen dutenak, 2001eko Udal Aurrekontu Orokorraren likidazioan errekonozituta daudela ikusirik.

<u>Sujetu Pasiboa</u>	<u>Ekitaldia</u>	<u>Kopurua</u>
Pedro Ugarte Endeiza	1996	40,89
Pedro Ugarte Endeiza	1997	40,89
Pedro Ugarte Endeiza	1997	5,30
Antonio Caballero Godoy	1997	40,89

Aipaturiko likidazioak gaur egun preskribituta daudela kontuan harturik.

ERABAKIA:

Udalbatzak ahobatez erabaki du 2001eko ekitaldiko aurrekontuaren eskubide onartuetako zerrendatik likidazio hauei baxa ematea.

4.- 2002/1 kreditu aldaketarako espedientearen onarpena

Udal honen aurrekontuari eragiten dion gastuen aurrekontu partiden arteko kreditu transferentziaren bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientearen berri eman da.

Idazkari-Kontuhartzaileak egindako txostena ikusirik, zeinek adierazten baitu aipatutako espedientea aplikagarri zaion araudiari egokitzen zaiola, zehazki apirilaren 20ko 500/1990 Errege Dekretuko 40 eta 41 artikuluetan ezarritako

baldintzei egokitzen zaiela.

2002ko abenduaren 11n eginiko Ogasun Batzordearen irizpena ikusirik.

ERABAKIA:

Udalbatzak ahobatez onartu du:

Lehenik: Proposamenean zerrendatzen diren gastuen aurrekontu partiden arteko transferentzi bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espediente onestea, Udal honen 2002ko Aurrekontuari dagokiona, aipatutako ondoko laburpenaren arabera:

Transferitutako kreditua biltzen duen gastuen partida (baja)

PARTIDA: 622.440.01.00

IZENA: Frontoiko aldagelak eta parkearen egokipena

HASIERAKO KREDITUA: 168.283 euro

GUTXITZEA: **3156,47euro**

AMAIERAKO KREDITUA: 165.126,53

Gehituko den kreditua biltzen duen gastuaren partida (alta):

PARTIDA: 609.440.01.00

IZENA: Loreontziak eta Panelak

HASIERAKO KREDITUA: 6.010 euro

GEHITZEA: **3156,47euro**

AMAIERAKO KREDITUA: 9166,47euro

Bigarrenik: Hasierako izaeraz onetsi den transferentzi bidezko kreditu aldaketarako espediente hau jendaurrean jartzea hamabost eguneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz.

Hirugarrenik: Kreditu aldaketarako espedientea jendaurrean dagoen epealdian inolako erreklamaziorik egon ezean, behin betiko izaeraz onartutzat ematea eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea berriro.

Laugarrenik: Transferentzi bidezko kreditu aldaketarako espedientea Eusko Jaurlaritza eta Gipuzkoako Foru Aldundira bidaltzea.

5.- Euskalgintzarako zenbait dirulaguntzen onarpena

Alkate jaunak hitza eman dio Mikel Errazkin Euskara Batzordeburuari eta honek urte bukaeran emateko utzitako dirulaguntza batzuk daudela esan ondoren Euskara Batzordean erabakitakoaren arabera ondoko dirulaguntza proposamena azaldu du:

2002ko dirulaguntzak banatzea

- 2002 urtean, euskararekin zerikusia duten hainbat elkarte/erakunderen dirulaguntza eskaerak jaso ditu Anoetako Udalak. Hona hemen zerrenda:
Kontseilua (1202,02 €); Nafarroa Oinez 2002 (Tuterako Ikastola); Herri Urrats 2002; Araba Euskaraz 2002 (Gasteizko Armentia Ikastola); Ibilaldia 2002 (Getxoko San Nikolas Ikastola); Kilometroak 2002 (Urretxu-Zumarraga Ikastola); Argia aldizkaria; Gatuzain argitaletxea; Ostiela aldizkaria.
- Aurten, Kontseiluaren dirulaguntza eskaera berria izan da eta erakunde honek egiten duen lana aitortu eta lagundu nahi du Euskara batzordeak. Horregatik, eskatzen den dirulaguntza ematea proposatzen du aho batez batzordeak.
- Bestalde, beste erakundeen artean ere sailkapena egitea proposatzen da, behar desberdinak dituztela kontuan hartuz.
- Azkenik, aldizkari eta argitaletxeen kasuan, aurten dirulaguntzarik ez ematea proposatzen da.

Batzordeak honako hau proposatzea erabaki du:

Honako erakunde/jarduera hauek diruz laguntzea:

- Kontseilua 1200 €
- Nafarroa Oinez 2002 - Tuterako Ikastola 200 €
- Herri Urrats 2002 200 €
- Araba Euskaraz 2002 - Armentia Ikastola (Gasteiz) 200 €
- Ibilaldia 2002 - San Nikolas Ikastola (Getxo) 150 €
- Kilometroak 2002 - Urretxu-Zumarraga Ikastola 150 €

Orotara, **2100 €** dirulaguntzetarako ematea.

Azalduriko zerrendan berri bat dagoela azaltzen du, Kontseiluarena hain zuzen ere; orain arte ez duela eskatu, Eusko Jaurlaritzatik eta dirulaguntzak jaso dituztelako baina aurten ez dutenez izan horrelakorik, Udaletara eskaerak egin dituztela eta aipatzen du Mikel Errazkinek bere taldeari egoki iruditzen zaiola dirulaguntza hau ematea Kontseiluak azken aldian eginiko lana interesgarria eta garrantzitsua iruditzen zaielako, hala nola, Behatokiaren proiektua, Osakidetzako oposaketan euskara mailaren eskakizunaren inguruan jarritako helegiteak....

ERABAKIA:

Ahobatez onartu da Euskara Batzordeak aurkezturiko dirulaguntzen proposamena.

6.- Euskadiko Toki eta Foru Administrazioaren zerbitzura dauden langileen lan baldintzak arautzeko hitzarmen politikoa 2002ko eta 2003ko ekitaldietarako.

Alkate jaunak hitza hartu du eta azaldu du alde batetik EUDEL-ek bere garaian bidalitako “Euskadiko Toki eta Foru Administrazioaren zerbitzura dauden Langileen Lan-Baldintzak arautzeko Hitzarmen Politikoa 2002ko eta 2003ko ekitaldietarako” proposamena dagoela baina beraiek hurrengo Hitzarmen proposamen hau aurkezten dutela:

**“ANOETAKO UDALETXEKO LANGILEEN LAN-BALDINTZAK ARAUTZEKO
HITZARMENA
2002ko ETA 2003ko EKITALDIETARAKO**

LEHENENGOA.- IRAUPENA.

Hitzarmen honek 2 urteko iraupena izango du, 2002ko urtarrilaren 1etik 2003ko abenduaren 31ra.

BIGARRENA.- ORDAINSARIEN ARAUBIDEA.

Oro har, toki eta foru sektoreko langile publikoen ordainsariak %2 igoko dira 2002. urtean.

2003. urtean ere, ordainsarien igoera berbera izango da, ekitaldiari ezarri ahal zaion aurrekontu-arauegiaz xedatutakoari kalterik egin gabe.

HIRUGARRENA.- ZERBITZU PUBLIKOAK HOBETU.

Erakundeek fondo bana zuzkituko dute, eta %1,4koa izango da gehienez ere. Fondo horrek lanpostuen edukiagatik, egitasmo bakoitzari esleitutako kopuruaren aldaketagatik edo zehaztutako helburuen lorpen-mailagatik ezinbestekoak diren ordainsari-egokitzapenak izango ditu xede.

2003. urtean, fondoa eratuko da. Aurreko ekitaldiko KPI eta oro har ezarritako ordainsari-igoeraren arteko aldearen baliokidea izango da gehienez ere. Fondo horrek lanpostuen edukiagatik, egitasmo bakoitzari esleitutako kopuruaren aldaketagatik edo zehaztutako helburuen lorpen-mailagatik ezinbestekoak diren ordainsari-egokitzapenak izango ditu xede.

LAUGARRENA.- LANALDIA

Hitzarmen honek dirauen bitartean, 1.592 ordukoa izango da Toki eta Foru sektore publikoko langile guztien lanaldia, arduraldi bereziko lanaldian xedatutakoari kalterik egin gabe.

BOSTGARRENA.- ELKARKIDETZA.

2002ko eta 2003ko ekitaldietan, langileen eta erakundeen ekarpenak %0,5 gehituko dira urtero. Horrela, bada, behin betiko eratuko da gizarte aurreikuspen osagarriako sistema.

SEIGARRENA.- ZERBITZU PUBLIKOEI EUTSI.

Hitzarmena sinatzen duten Foru eta Toki Administrazio eta Sindikatu guztiek Zerbitzu Publikoei, eta hauen kudeaketa zuzenei, eutsi eta hobetu egingo dituztela adierazten dute.

Zerbitzu publikoak nola emango dituzten zehazteko orduan, Toki eta Foru Administrazioek eragingarritasuna eta eraginkortasuna hartuko dituzte kontuan, eskuragarri dituzten baliabideak ustiatu ahal izateko. Horrela, bada, kalitate oneko zerbitzu publikoa eskainiko dute eta zerbitzua eskatzen duen hiritar-kopuru handienera iristen ahaleginduko dira.

Toki eta Foru Administrazioek euren langileen bidez eskainiko dituzte zerbitzu publiko gehienak. Horrez gain, azpikontratutako enpresetako lana baldintza duinetan garatu beharko da (ordainsariak, gizarte segurantzaren, lan arriskuen aurrezaintza...), eta gutxienez, ezarri beharreko legezko edo ohiko xedapenek zehaztutako baldintzak bete beharko dira. Horretarako, Administrazio kontratugileek kontratatutako enpresetako

langileentzako lan-baldintzei buruzko zenbait alderdi jasoko dituzte baldintza teknikoen orrietan, kontratazio publikoari buruzko indarreko legeriaren betekizunei eutsita.

Erakundeetako Gizarte Ordezkaritzarekin batera, Toki eta Foru Administrazioek kontratu-esleipenetan jasotako klausulak egiaztatu, kontrolatu eta jarraitzeko sistemak ezarriko dituzte.

ZAZPIGARRENA.- TXANDA ETA ORDEZKAPEN KONTRATUA.

Hitzarmen honen lurralde eta eginkizun eremuan, txanda eta ordezkapen kontratuak sinatuko dira hitzarmenak dirauen bitartean, urriaren 31ko 1991/1994 Errege Dekretuan eta uztailaren 17ko 1.994/1985 Errege Dekretuan aurreikusitakoa ezartzeko asmoz.

Txanda kontratuetan, erreferentzia-arauan oro har xedatutako betekizunei kalterik egin gabe, txandakako langileak aldi baterako kontratatuko dira, "harik eta zati batez erretiratzen den langilearen arauzko erretiroa iritsi arte". Zati batez erretiratzen den langilearen lanaldia osatzeko modukoa izango da aldi baterako lanaldia.

Era berean, sinatzaileek Administrazio eskudunari eskatuko diote behar besteko neurriak hartzeko, Gizarte Segurantzako araubide orokorrera atxikitako funtzionarioek ere txanda zein ordezkapen kontratuz gozatzeko aukera izan dezaten. Horrez gain, langile-taldea gaztetzeko beste edozein neurri hartzeko ere eskatuko diote.

ZORTZIGARRENA.- ESKUBIDE SINDIKALAK.

125etik gora langile dituzten udaletan baino ez da liberatuko sindikatuko kidea, beste Erakunde batean orduak metatzeagatik.

Horretarako, pertsona bat liberatzeko 1.350 ordu metatu beharko direla hitzartzen da.

Liberazio eskubidea erabili ahal izateko, liberatzeko asmoa duen pertsonak dagokion jakinarazpena eta honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu lanean diharduen Toki Erakundeetan:

- 1) Zehaztutako orduak lagatzeko borondatea dutela adierazteko asmoz, Toki Erakundeetako Langile Batzordeko kide edo Langile ordezkari guztiek egindako*

aitorpena, beti ere liberazio-eskatzailearen Sindikatukoak badira eta lagapena egiteko prest badaude.

- 2) *Horrez gain, Langile Batzordeko kideek edo Langile ordezkariak lanean diharduten Toki Erakundeetako idazkariak egindako ziurtagiria, beti ere liberazio eskubidearen eskatzaileari euren ordu-kredituak emateko prest badaude. Bertan, dagokion funtzionarioa Toki Erakunde horretako Langile Batzordekoa edo Langile ordezkaria dela adierazi beharko da, bai eta oraindik ere laga edo erabili gabe duen urteko ordu-kreditua ere.*

Liberazio eskubidea erabilitakoan, eskubide hori erabili ahal izateko euren ordu-kredituak eman dituzten funtzionarioek lanean diharduten erakundeei eta EUDELI jakinaraziko die dagokion Toki Erakundeak, eta eurek funtzionario lagatzaileei jakinaraziko diete. Nolanahi ere, ordu-lagapenak dagozkion baldintzetan dirauen bitartean baino ez zaio eutsiko eskubideari.

Ordu sindikalez gozatzeko, aldezturik jakinarazi beharko zaio nagusi hierarkikoari, zerbitzu publikoak behar bezala antolatu eta eskaini ahal izateko.

BEDERATZIGARRENA.- GIZARTE HOBEKUNTZAK.

- ⊖ **Haurdunaldiko arriskuagatiko lizentzia:** Kasu horietan, Toki eta Foru Administrazioek %100eraino osatuko dituzte emakume langilearen ordainsariak.
- ⊖ **Edoskitzaroa:** Umeak 12 hilabete dituen arte luzatuko da lizentzia hau.
- ⊖ **Laguntza behar duten nagusiei eta seme-alaba adingabeei medikuarenera laguntzeagatiko lizentzia** luzatu egingo da, eta gehienez ere, behar bezala egiaztatutako 4 ordukoa izango da hilero.
- ⊖ **Senideen gaixotasun larriagatiko lizentzia:** Lizentzia-egunak elkarren segidakoak edo aldizkakoak izango dira. Horrez gain, lehenengo gozamen-egunetik azken egunera arte ez dira hamalau egun natural baino gehiago igaroko. Araututako lanaldiak 8 ordukoak izango dira gutxi gorabehera.

HAMARGARRENA.- PRESTAKUNTZA ETENGABEA.

Toki eta Foru Administrazioek Estatuko Administrazioari eskatuko diote eskumena transferitzeko eta dagokion aurrekontua zuzkitzeko, Euskal Administrazio Publikoetako Prestakuntza Planak HAE Eren bidez finantzatu ahal izateko, sindikatuen partaidetza eta guzti.

Aurreko paragrafoan azaldutakoa betetzen ez den bitartean, administrazio horiek prestakuntza-plan bana negoziatuko dute erakundeetan. Horretarako, lanposturako prestakuntzan zein administrazio karrerari lotutako prestakuntzan antzemandako premiak hartuko dira kontuan.

HAMAIKAGARRENA.- LIZENTZIAK ETA BAIMENAK.

Familia eta lan bizimodua bateratzeko arautegira egokituko dira gaur egungo lizentziak eta baimenak.

HAMABIGARRENA.- ZERBITZUAGATIKO KALTE-ORDAINAK.

Hitzarmen hau sinatzen duten administrazioek eta sindikatuek egitasmoa aurkeztuko dute Funtzio Publikoko Euskal Kontseiluan.

HAMAHIRUGARRENA.- BORONDATEZKO ERRETIROAGATIKO KALTE-ORDAINAK.

Gaur egungo idazketari eutsita, honako taula honen arabera zehaztuko dira borondatezko erretiroagatiko sarien zenbatekoak:

θ	60 urte...19 hileroko		
θ	61 urte...15	“	
θ	62 urte...11	“	
θ	63 urte...8		“
θ	64 urte...5		“

HAMALAU GARRENA.- BIZI ASEGURUA.

Gaur egungo idazketari eutsita, 6.000.000 pezetakoa izango da estaldura (36.059,86 euro).

HAMABOSTGARRENA.- KONTSUMO MAILEGUAK.

Premien araberako kontsumo maileguak emango dira, eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren arautegira egongo dira lotuta. Maileguak 300.000 pezetakoak (1.803,04 euro), 600.000 pezetakoak (3.606,07 euro) eta 900.000 pezetakoak (5.409,11 euro) izango dira, eta 12, 18 eta 24 hilerokotan itzuli beharko dira, hurrenez hurren.

HAMASEIGARRENA.- ALDI BATERAKOEN ZERRENDAK.

Toki eta Foru Administrazioek berdintasun, meritu, gaitasun eta publizitate abiaburuen arabera garatutako aukeraketa-prozesuetako zerrendak izango dituzte. Dagokion aukeraketa-prozesutik sortutako hierarkiaren arabera, zerrenda horiek lan-poltsa moduan erabiliko dira, aldi baterako edo ordezkapen lan-kontratuak gauzatzeko.

Hitzarmen hau sinatzen duten Administrazioek lanbide-maila jakin baterako zerrendarik ez balute eta zerrenda hori premiazkoa balitz, beste Administrazio bati eskatu ahal izango liokete dagokion zerrenda; eta administrazio lankidetzaren arabera, jaso egingo lukete.

HAMAZAZPIGARRENA.- GATAZKEN KONPONBIDEA.

Toki eta Foru Administrazioek eta Sindikatuek gatazkak konpontzeko sistema garatuko dute, eranskinean xedatutakoaren arabera.

HAMAZORTZIGARRENA.- LANBIDE SUSTAPENA.

Toki eta Foru Administrazioek neurri eraginkorren bidez sustatu eta bultzatuko dute euskal sektore publikoan diharduten langileen lanbide-sustapena.

Lanbide-sustapena administrazio karrera garatzeko neurria da, baina horrez gain, kalitate hobeko zerbitzu publikoak eskaintzea ere badu helburu. Horrela, bada, gero eta zorrotzagoak diren hiritarren eskariei emango zaie erantzuna.

Horretarako, beharrezko arautegiak aldatzeko eskatuko da.

HEMERETZIGARRENA.- EUDELeK EGUNERATUTAKO HITZARMENAREN TESTUA.

ERANSKINA

EUSKADIKO FORU ETA TOKI ADMINISTRAZIOKO GATAZKAK KONPONTZEKO PROZEDUREI BURUZKO HITZARMENA

1. artikulua.- Hitzarmenaren Helburua.

1. 9/1987 Legearen 32. eta 38. artikuluetan, Langileen Estatutuaren 83. eta 91. artikuluetan, Lan Prozedurari buruzko 2/1995 Legegintzako Errege Dekretuaren 154. artikuluan eta Askatasun Sindikalari buruzko 11/1985 Lege Organikoaren 6. eta 7. artikuluetan oinarritutako Hitzarmen honen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Foru edo Toki Administrazioaren edo bere erakunde autonomiadunen zein sozietate publikoen eta funtzionarioen, estatutu langileen edo langileen artean sortzen diren gatazkak judizioz kanpo konpontzeko modua ezartzen da.

2. Horretarako, 1994ko ekainaren 21ean 117. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratutako Gatazkak Konpontzeko Borondatezko Prozedurei buruzko Konfederazio arteko Hitzarmenek (II. Preco) sortutako adiskidetze, bitartekaritza eta arbitraje prozedurak erabiliko dira. Dena dela, Hitzarmen honetan aurreikusitakoaren arabera egokituko dira lehendabizi.

2. artikulua.- Eremua.

1. Hitzarmen hau Euskal Autonomia Erkidegoko honako gatazka hauetan ezarri ahal izango da, beti ere aurreko artikuluan aipatutako subjektuak erasaten badituzte.

2. Argitaratzen den egunean bertan hasiko da Hitzarmenaren indarraldia, eta mugagabea izango da. Nolanahi ere, indarrean sartu zenetik hasi eta hiru urtean behin, edozein sinatzailek salatu ahal izango du epe horren mugaeguna baino bi hilabete lehenago.

3. artikulua.- Prozeduren helburu izan ahal diren gatazkak.

1. Prozedurak berehala ezarri ahal izango zaizkie era guztietako gatazka kolektiboek, beti ere arestian aipatutako hiru langile-mailetako batean edo aldi berean zenbait langile-mailatan eragina badute. Bereziki, honako hauek izango dira gatazka horiek:

- Era guztietako negoziazio kolektiboetan sortutako tirabirak, esate baterako, akordio edo itun kolektiboetan eta hitzarmen kolektiboetan.*
- Hitzarmen, akordio eta itun kolektiboen interpretazioan edo ezarpenean (tresna bakoitzak eratutako batzorde parekideari men egin ondoren) edo funtzionarioen eta estatutu langileen lan araubidea eta baldintzak arautzen dituzten lan zein administrazio arloko legezko arauetan eta arautegietan sortutako desadostasuna.*
- Administrazio erakundeak langileei buruz hartutako erabakiak edo garatutako jardueretikiko desadostasunak. Euren artean, berariaz barne hartuko da Langileen Estatutuaren 40., 41., 47. eta 51. artikuluetan eskatutako edo hitzarmen, akordio edo itun kolektiboen bidez beste gai batzuetan ezarritako kontsulta-epeetan lortzen ez den adostasuna.*

4. artikulua.- Legezko zat jotako subjektuak.

Administrazio erakundearen edo gatazkak erasandako administrazio erakunde guztien ordezkariak eta 9/1987 Legearen 30. eta 31.2. artikuluek 7/1990 Legearen idazketan aipatzen dituzten sindikatu ordezkariak izan ahalko dira funtzionarioak edo estatutu langileak erasaten dituzten prozeduretako alderdiak.

5. artikulua.- Prozeduren borondatea.

1. Arbitrajerako, bi alderdien gehiengoaren adostasuna behar izango da beti, II. Precoko hitzarmenetan xedatutako baldintzetan.

2. Legezkoztat jotako subjektu guztiek eskatu ahal izango dute adiskidetzea, eta bi alderdietako baten gehiengoak onartu behar izango du abian jarri ahal izateko. Izan ere, ez da beharrezkoa izango beste alderdia ados egotea, baina prozeduran parte hartu beharko du, horretarako deia jaso ondoren. Lan Prozedurari buruzko Legearen 154. artikulua onorioetarako, prozedura hori administrazioko adiskidetzearen ordezkaria izango da langileei eta estatutu langileei dagokienez, eta bertan aurreikusitako auzibidea garatu aurreko betekizuna agortzeko modua izango da.

3. Arbitrajean bezala, bi alderdien gehiengoa behar izango da bitartekaritza abian jarri ahal izateko. II. Precoko lurralde zerbitzuko arduradunak egiaztatu beharko du gehiengo hori, bere arauetan xedatutakoaren arabera. Dena dela, euretako edozeinen borondatea nahikoa izango da:

- Erasandako erakundearen ezarri ahal den hitzarmen, akordio edo itun kolektiboak halaxe xedatzen duenean.*
- Hitzarmen, akordio edo itun kolektiboa negoziatzeko orduan sortutako tirabira denean, beti ere negoziazioa sustatu zenetik hiru hilabete igaro badira eta bitartekaritza eskatu aurreko azken hilabetean negoziazio-jarduera formalik egon ez bada.*

6. artikulua.- Ondorio lotesleak.

1. Gatazkan dagoen/dauden erakundea edo erakundeak eta taldea lotesteko besteko legezketasuna dutenek sinatu beharko dute arbitrajeari men egiteko akta. Erakundeari dagokionez, bere gobernu organoak onartu beharko du akta, bere baimena behar duen gaiari buruzko gatazka bada.

2. Erakundeko gobernu organoak berretsi beharko ditu adiskidetze bidezko adostasuna eta bitartekariaren proposamenaren onarpena. Horretarako, gatazkan dauden alderdiek prozeduraren hasieran aurreikusiko dute zenbat denbora gehitu beharko den gobernu organoak berresteko aukera izan dezan, adostasuna lortu edo bitartekariaren proposamena onartuz gero.

3. Langileen, estatutu langileen edo funtzionarioen arauen arabera, kasu horietan guztietan, bi alderdien gehiengoak onartutako laudo arbitralak, adiskidetze bidezko adostasunak edo bitartekariaren proposamenak hitzarmen, akordio edo itun kolektiboaren ondorio lotesle berberak izango dituzte. Horretarako, ofizialki erregistratu eta argitaratuko dira, kasuan kasuko arautegiak halaxe eskatzen duenean.”

EAJ-PNV/EA taldeko Rafael Uribarren jaunak dio badakiela gai honekin arazoak egon direla Udaletxe guztietan adostasunik ez delako lortu baina euren jarrera EUDEL-ek egin zuen proposamenaren aldekoa izango dela

ERABAKIA:

Proposamenak bozketara eraman dira eta jarraian zehazturiko emaitza izan da:

Alkatearen proposamena:

Aldeko botuak:5 (ASA taldeko zinegotziak)

Aurkako botuak : 2 (EAJ-PNV/EA taldeko zinegotziak)

Abstentzioak:0

**EUDEL-ek bidalitako Euskadiko Toki eta Foru-Administrazioaren
zerbitzura dauden langileen lan baldintzak arautzeko hitzarmen politiko
2002ko eta 2003ko ekitaldietarako proposamena:**

Aldeko botuak:2 (EAJ-PNV/EA taldeko zinegotziak)

Aurkako botuak:5 (ASA taldeko zinegotziak)

Abstentzioak:0

Udalbatzarreko gehiengo absolutua osatzen duten zinegotzien botuarekin Alkateak eginiko “Anoetako Udaletxeko Langileen lan baldintzak arautzeko Hitzarmena 2002 eta 2003 ekitaldietarako” proposamena onetsi da.

Eta beste aztergairik ezean, alkate jaunak amaitutzat eman du bilkura iluntzeko zortziak laurden gutxiago direnean. Guzti honetaz, nik Idazkariak, fede ematen dudalarik.

.Nerea Etxebarria Atutxa

Idazkari Akzidentala

O.E

..... Jose Maria Sarasola Goenaga

Alkatea

